

IRABAZI ITURRIAK

Gure zerbitzuak nagusiki prezio finkoak izango dute. Ez dira eskaintzaren arabera aldatuko. Prezio finkoen barruan, zerrendako prezioa izango du, hau da, beti izango da berdina. Bestalde, pertsona batek lagun bat edo gehiago konbentzitzen badu gure zerbitzua erosteko, %20ko deskontua izango du, gainera, bere lagunek %15ko deskontua izango dute.



Lehen aipatu dugunez, gure enpresa sozietate mugatu bat izango da, 3.000€-ko inbertsioa behar izango dugu. Horregatik, business angels-zerbitzura joko dugu. “Angel” hauek guregan inbertitu ahalko dute errentagarritasuna lortzeko, horregatik, ez dakigu zenbat diru beharko dugu hasieran, baina kalkulatu dezakegu 1.000€-koa izango dela. Diru hau lortzeko bankuari eskatuko diogu maileguaren bidez.



GURE ZERBITZUEN PREZIOAK HAUEK IZANGO DIRA:

- Laguntza psikologiko: 40€
- Elikadura programak: 80€
- Nerabeen (11-18 urte) kanpusa : 300€
- Helduen (18-30 urte) kanpusa : 400€

Kanpusaren ezaugarriak: Umeak kontzientziatuko ditugu. Beren harreman-trebetasunak landuko dituzte eta obesitatearen ondorioak azalduko ditugu. Kanpamendu honek aste bat iraungo du, oso luzea ez izateko.

